

35garrenez, Mikel Zabalza eta berarekin atxilotuak eta torturatuak izan zirenak oroitzeko bildu gara.

Esan behar dugu aurten, pozik eta harro egoteko bi arrazoi ikusten ditugula: alde batetik, sustengu ekonomiko zabala lortuta, Mikeli buruzko dokumentala argia ikusi duelako. Bestaldetik, urteetako lanaren ondorioz, Altzan Mikel Zabalzaren txokoa errealitatea bihurtu delako.

Biak ala biak, herritarren lanari, temati izateari, eta elkartasunari esker lortu dira.

Egia, justizia, memoria, aitortza, erreparazioa. Hauek dira urteetan gidatu gaituzten ardatzak. Gu, herri ekimen gisa; baita herritarrak ere. Hasiera hasieratik.

### **Non dago Mikel ?**

Hau izan zen, “desagerpena”-ren berri izan bezain pronto aktibatu zen galdera. Patxi Zabalza, Aitor Zabalza, Idoia Aierbe, Manuel Vizcay eta Jon Arretxe, berarekin atxilotuak izan zirenen tortura zantzuen testigantza argi, bezain gordinak genituen, eta mugitzen hasi ginen. Mobilizazioak, interpelazioak, mozioak, herri akusazioak epaitegietan. Presio horrek lehen lorpena ekarri zuen. Bai, esatea gogorra bada ere, herritarren presioari esker Mikelen gorpua berreskuratu zen, Mikelentzat beste destinoa aurreikusia baitzuten Intxaurrondoko Goardia Zibilak eta garaiko PSOEko gobernuak: betirako desagertzea, asmatutako istorio baten sinesgarritasunaren mesedetan.

### **Aitortza**

Nahi baino erritmo motelagoan, pixkanaka Euskal Herriko eremu instituzional ezberdinetan Mikelekiko aitortza eman da. Ez dugulako ahaztu eta ez dugulako utzi inor ahanzte, besteak beste.

Jaurlaritza, Nafar Gobernu, Donostiako Udala, Mendialdeko udalak.. denen artean bide bat jorratzen ari da eta gaur da eguna non Mikel “biktima” izaera onartua duen, edo instituzio hauen testuetan esaten den bezala, “Segurtasun indarrek bitzita eskubidearen aurka egindako urraketa”ren biktima izan den.

### **Memoria**

Ezinbestekoa dugun osagaia, eta hasieran esan bezala, aurten bi tresna gehiago eskuratu dituen. Hala da. Mikelen txoko honekin eta Dokumentalarekin, gehi Aezkoan landu duten transmisio-katea belaunaldi berriei Mikel nor zen eta Mikeli ze gertatu zitzaion kontatzeko aukera gehiago ditugu. Herritarrok ez dugu ahaztuko eta belaunaldi berriek ezagutuko dute eta aipatutako ardatzen inguruan lanean segitzeko ezinbesteko tresnak dira.

### **Egia, justizia, erreparazioa**

Bai, lana dugu oraindik. Esan bezala, herriaren tematasun horri esker hainbat lorpen izan dira, konpromisoak bizirik mantentzen dira, Mikel akatu arte torturatu zutenen nahiari, manipulazioari aurre egitea soilik ez... pixkanaka buelta ematen ari gara.

Urrats gehiago landu behar ditugu: Espainiar Gobernu, Euskal Herrian duten Delegazioko,.. inork ez du oraindik Mikeli buruzko ezer duinik esan. Ez dute biktimatza hartu. Ez diote egiari bidea ireki.

Gezuraren gainean ezin da justizia eraiki...Oraindik ez dago erantzunkizun penalik, ezta politikorik ere.... Inpunitatea da Espainako Estatuak ofiziala izendatu duen bakarra...

Herriak bakarrik alda dezake egoera hau... Lanean segitzea besterik ez zaigu geratzen...eta horretan jarraituko dugu haien senide eta lagunekin batera... Eta hemendik gonbidapena luzatzen dizuegu, herritar nahiz instituzio, gazte zein heldu, bakoitzak bere neurrian, dinamika honetan parte hartzera.

Amaitzeko esan, gaur zabaltzen den Altzako “Mikel Zabalzaren Txokoak” kasu hau, baina baita ere Idoia, Jon eta indar polizialen zaintzapean tortura pairatu duten milaka euskal herritarren memoriaren gordelekua izan nahi duela, ... inoiz... inon... inori... gerta ez dakion....